

**2017KO OTSAILAREN 23AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hirua.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hamazazpi

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak:

KOLDO AGIRRE MUJIKA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

Aitor Aldasoro Iturbe, Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Hasi aurretik esan, eskaera eta galdera atalaren aurretik bozkatu dugu premiazko puntu modura tratatzea, martxoaren 8ko emakumeen nazioarteko egunaren adierazpena.

.1.- AURREKO AKTA. 2017ko urtarrilaren 26ko akta onartzeko proposamena.

2017ko urtarrilaren 26ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- TASAK. 2017rako tasak onartzeko proposamena, Musika Eskolan zerbitzuak prestatzeagatik.

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

I.- Beasaingo Loinatz Musika Eskolako Batzorde Erretoreak 2016ko ekainaren 9an, materialaren maileguak arautzea eta erabilpen horrengatik kobratu beharreko tasak ezartzea erabaki zuen.

II.- 2016ko azaroaren 24an Beasaingo Loinatz Musika Eskolako zuzendariak, tasak ezartzeko derrigortutako txosten tekniko-ekonomikoa igorri zuen (Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 25 art.).

Azaldutakoaren arabera, Antolakuntza Batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten dio UDALBATZA OSOARI:

Lehenik.- Loinatz Musika Eskolan zerbitzuak emateagatik tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren eranskina aldatzea 2017rako, ondorengoak gaineratuz:

Erabilpen
bakoitzarengatik

INSTRUMENTU ETA MATERIAL UZTEA

Megafonia eta Oso Balio handiko instrumentuak (bafleak, mikroak eta soinu mahaia, marinba, piano...)	20,00 €
Balio ertaineko instrumentu eta materialak (Teklatuak, xilofonoa, bonboak, tinbalak, batería, trikitixa, akordeoia, txistua,...)	15,00 €
Megafonia portatila (amplifikadore txikia, mikro bat eta kablea)	10 €
Balio txikiko instrumentu eta materiala (bateriako kaxa, atabala, txindatak..)	5,00 €

Material simple (atrilas, baquetas....)

0,00 €

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta zabalkunde handieneko Gipuzkoako egunkariaren bitartez iragarkia argitaratuta agertzen den azken egunetik aurrera kontatuta, espedientea jendaurrean 30 lanegunez egongo da ikusgai, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.- Inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz aipatutako epean, erabakia eta aldatutako Ordenantzaren eranskina behin betirako onartutzat emango dira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azal dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

3.- PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA 2017RAKO ETA DEDIKAZIO OSAGARRIAK. Onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- Gai honen inguruan badago haserako proposamen bat, 2016-12-15eko Udal Antolakuntza Batzordekoa, eta honen bidez aldatzen dena (eranskin bezala eransten da).

2.- Aipatzen den Plantila eta Lanpostuen Zerrendaren Proposamena Udalbatza Osoan onartu baino lehen aztertu eta gero; hainbat aldaketa sartzen dira eta behin aldaketa horiek txertatu ondoren, jasotzen dituen Beasaingo Udaleko eta bere organismo autonomoetako plantila eta Lanpostuen Zerrendak eratzten dira 2017. urterako.

3.- Eratu diren dokumentuek, antzekotasun handia dute, plaza eta lanpostuen izenei eta kopuruei dagokionez, 2016. ekitaldi ekonomikorako eratu zirenekin, ondorengo salbuespenekin:

3.1. Plaza hauek amortizatzea:

-ZABOR ARDURADUNA.

-DIRUZAINZA ADMINISTRARIA.

-OBRA ETA MANTENIMENDU LANGILEA (Taldea C2/E)

3.2 Eta ondorengo plaza berriak sortzea:

-GIZARTE LAGUNTZAILEA, 2 PLAZA.

-ADMINISTRARI BAT (%50eko LANALDIA)

3.3. ADMINISTRARI / SARE INFORMATIKOAREN KUDEATZAILEA plaza amortizatzeke oharra, bere titularra datorren 2017-07-11n jubilatuko delako, eta bere orde, plaza amortizatzearekin batera, ordezkapena egingo duen plaza berria sortzea,

INFORMATIKA TEKNIKARIA izenekoa, A1 taldekoa, destino osagarria 21 duena eta urteko ordainsari gordinak 41.916,90 €takoak.

3.4. DIRUZAIN plaza Administrazio Orokorreko eskalako izatetik Gaikuntza Nazionalekoa izatera pasatzen da.

4.- Dedikazio Osagarria duten postuen inguruan, Beasaingo Udalean orain daudenak mantentzen dira:

-Aparejadorea: 9.066,40 €/urtean.

-Zerbitziburua: 9.066,40 €/urtean.

-Udaltzainburua: 9.480,80 €/urtean eta

-Euskara eta Kulturako Koordinatzailea: 2017. Ekitaldirako 10.469,10 €/urtean, 2016. Urterako ziren 4.187,83 €/urtean izan ordez, lanaldi luzatuko modalitatetik Erabateko erabilgarritasuneko lanaldi luzatura pasatuz.

4.1. Beasaingo Loinatz Musika Eskolan Dedikazio Osagarria mantentzen da 2 Irakasle postuetan, baino hemen ere modalitatea aldatuz, beraz, lanaldi luzatutik Erabateko erabilgarritasuneko lanaldi luzatura pasatuz.

Kopuruak ere aldatu egingo dira, Zuzendari kasuan %25a eta irakaslean %20a izanik, urteko balioak 8.957,87 € eta 7.166,29 € izango direlarik, 3.583,34 € izan beharrean, eta baita ere "Zuzendaritza Osagarria" mantenduko da hauetako batean.

5.- Hizkuntza Eskakizunak ezartzea:

5.1. Harrera Bulegoko Koordinatzaile postuan, 2 HE izatetik, 3 HE izatera pasatzen da.

5.2. Gizarte Ongizate Sailera atxikita dagoen Administrazio Orokorreko Administrazioaren postu hutsean, 2 HE izatetik, 3 HE izatera pasatzen da.

5.3. Informatika Teknikaria izeneko sorrera berriko postuari 3 HE ezartzen zaio.

5.4. Gizarte Ongizate Sailera atxikita dagoen Administrazio Orokorreko sorrera berriko Administrazio postuan (%50eko lanaldia duena) 3 HE ezartzen zaio.

5.5. Gizarte Laguntzaileko sorrera berriko bi postuei 3 HE ezartzen zaie.

5.6. Postu guzti hauen derrigortasun data, neurri guzti hauek onartuko direneko Udaltzaria Osoko data izango da, hau da, 2017ko otsailaren 23a.

OINARRI JURIDIKOAK

Aplikagarria den legedia ondorengo legetan dago bilduta:

- Erregimen Lokaleko Testu Bateratua (126,1 artikulua)
- Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretua (2f art.)
- Erregimen Lokaleko oinarrien Lege arautzailea (70,2 eta 22,2i artikulua).

Hau guztia ikusirik eta ezaguturik, 2016ko abenduaren 12an eta otsailaren 6an, Pertsonal Teknikariak emandako txostenak, Udaltzaria Osoko Batzordeak, Udaltzaria Osoko Batzarrera eramaten du ondorengo

AKORDIO PROPOSAMENA:

Lehenik. Udaleko eta bere erakunde autonomoetako 2017. urterako pertsonal funtzionario, behin behineko pertsonal eta pertsonal laboralaren plantilari haserako onespina ematea, Akordio honi atxikita doan eranskinean azaltzen denez, bertan daude bakoitzaren izenak eta oinarritzko ezaugarriak, lanpostu horiek burutzeko eskatutako baldintzak, zein taldetakoak diren, atxikita dauden eskalak, hornitzeko erak, destinu osagarriaren mailak eta lanpostu bakoitzari izendatutako osagarri espezifikoak (tramu orokorra eta dedikazio bereziko tramua). Modu honetara, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuko 74. artikuluko eta Erregimen Lokaleko Oinarrien Lege arautzaileko 90.2 artikuluko arauak betetzat jotzen dira edukiari dagokionez, zerbitzuen behararen arabera, pertsonalaren ordenatzearen inguruan.

Bigarrena.- Erabaki honen aurrekinetan azaltzen den Dedikazio Osagarri aldaketan haserako onspina.

Hirugarrena.- Publikoari erakustea hamabost egunez, Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik, erreklamazioak egiteko aukera egon dadin.

Laugarrena.- Behin betiko onartzen denean, honen kopia bidaltzea Estatuko eta Komunitate Erkidegoko Administrazioari, eta argitaratzea Probintziako Aldizkari Ofizialean, bere ezagupenerako eta indarrean sartzeko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte.

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): "Gu gai honekiko abstenitu egingo gara. Arrazoia: antolakuntza edo informatika sailaren azterketa orokorra beharko luke. Hori eskatu genuen. Ikusirik sail horren egoera zein den, urtero mantentze aldetik ditugun kostuak eta komunikazioarekin duen lotura (ez bait zaigu iruditzen Alkatearen aholkulari egon beharko lukeenik), azterketa sakonagoa egin beharko litzateke. Bestalde, zabor arduraduna eta obra eta mantenimendu langileak desagertze horrekin eta besteak sortzearekin ere, ez gaude ados, Garbi dago lekualdaketa dela, jokaldi bat, jakin badakigu legeak hori egitea baimentzen duela, baina gure ustetan obretako saila indartu beharrekoa dela uste dugu, herria egoera onean mantentzeko lanak direlako. Azkeneko urteetan beheraka doan brigada da, baina gure ustez jaistea baino gorakada bat behar duen saila da. Hortik dator gure abstentzioa.

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): "Proposatzen dena da bi gizarte laguntzaile eta administrari erdia ongizate sailerako onartzea. Horiek onartzeko, gaur egun Administrazioak ez ditu nahi adina baliabide lanpostuak sortzeko, legeak ezartzen dituen mugak direla eta. Herramienta bakarra, hau da eta horrela esan zitzaien enpresa batzordeari. Ba al dago besterik?. Esaten denean, informatika lanpostuari buruz, azterketa egin behar dela, dudarik gabe, egingo da, baina gaur egun Gipuzkoa mailan mapa sozio-sanitarioa onartuta dugu, eskubide subjektiboak onartuta ditugu eta gutxieneko behar horiek betetzeko proposatzen dena da, langile finkoak ez direnak finkoak egitea. Beraz, beharrei erantzuten zaion proposamena da eta legeak esandakoarekin, onerako edo txarrerako, betetzen dugu. Irtenbide bakarra da bete gabe dauden lanpostuetatik tira egitea. Ez da ezer jaisten. Brigadan ez dira langile gutxiago egongo. Inoiz ikusten bada brigadan postu gehiago behar direla, sortu egin beharko dira. Lehendik urteetan bete gabe zeuden lanpostuak dira desagertzen direnak, aipatutako mapa sozial horri aurre egiteko. Nire ustetan aurrera pausoa da,

orain ongizate sailan dauden langileak finkotasuna lortzea. Gertutik jarraipena egin beharko diogu antolakuntza sailari, baina gaur egun legeak ez digu uzten irtenbide gehiagorik”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Lehen esan dudan bezala, ez gaude jokaldi horren aurka, baina bai ikusi duguna da, gure legealdian ez zela posible lanpostuen horiek betetzea eta historikoki azpi-kontrataziora jo dela lan horiek burutzeko. Lehen kale garbitzaileak, zabor arduraduna, etab, Udalaren plantilakoak ziren baina orain dena azpikontratatu da. Gu horren aurka gaude eta gure ustetan Udalak horiek berreskuratu egin beharko lituzke. Ahal denean Udalaren barne izatea gustatuko litzaiguke eta ez enpresa pribatuaren esku.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Arazoa hori da. Ez lehengo legegintzaldian ezta oraingoan ere ezin dela”.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH BILDU)

Beraz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

4.- ARAUDIA: Beasaingo udalerrian baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko araudiari hasierako onespina emateko proposamena.

Lurralde batzordearen ondorengo proposamena azaldu da:

“AURREKARIAK

1.- 2016-11-29ko Zerbitzu Batzordeak proposatuta eta Administrazio Publikoetako Administrazio-prozedura erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua dioena betez, “udal baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko” onartu nahi den araudiari buruzko kontsulta publikoa egin da Udalaren Web orriaren bitartez, arauak eragina izan dezaketen pertsona eta eragile esanguratsuenen iritzia jasotzeko.

2.- Kontsultaren argitaratze data, ondorengoa izan da: 2016-12-05. Parte-hartze prozesua irekia egon da, 2016-12-30arte.

3.- Epealdi horretan ez da iradokizunik ezta ekarpenik aurkeztu, baina ofizioz aldaketa batzuk egin dira.

LEGERI APLIKAGARRIA

- Apirilaren 2ko 7/1985, Toki Araubidearen Oinarriak onartzen dituen Legearen 49. artikulua, jarraitu beharreko prozedurari buruz.

- Apirilaren 2ko 7/1985, Toki Araubidearen Oinarriak onartzen dituen Legearen 22.2d) artikulua, onartzeko eskumena duen organoari buruz.

Horren ondorioz, Lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. 2015-05-14an Udalbatza Osoak “udal baratze parkeko erabilerari buruzko araudiari” hasierako onespina emateko hartutako erabakia, bertan behera uztea.

Bigarren. Beasaingo Udalerrian baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko araudiari hasierako onespina ematea.

Hirugarren. Testuaren hasierako bertsioa, Web orrian nahiz gardentasun atarian argitaratzea.

Laugarren. Informazio publikoan jartzea 30 eguneko epean erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko. Aurkeztu ezean, ordura arte behin behinekoa zen testua, behin betikoa izatera pasatuko da.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Laburbiltzeko esan, %65ak sozialak izango direla eta %35a libreak eta hauek hileko eta partzelako 10 € ordaindu beharko dutela.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gu, noski, ez gaude baratzak egitearen aurka, baina abstenitu egingo gara ez gaudelako ados legealdi honetan gai honekin eraman den prozedurarekin. Aurreko legealdian proiektu bat martxan genuen, pauso batzuk eman ziren, araudiari ere hasierako onespina eman zitzaion, baina legealdi berri hau hasi zenean lehenengo minututik ez genuen inolako berririk izan. Ez dakigu bere garaian izena emandako ehun eta piko herritarren egoera zein den, hau da, orain zein eskubide izango dituzten. Gai honen inguruan lehenengo berria HITZAn irakurri genuen. Bertan aipatzen zen baratze hauek kokagunea zien izango den eta proiektuaren xehetasun batzuk. Egun horretan bertan, batzordea izan genuen eta HITZA eraman eta galdetu genuenean ez genuen erantzunik jaso. Bakarrik proiektua pasatuko zitzaigula, baina inolako daturik eman gabe. Legealdi honetako bidea gai honi buruz honela izan da. Ahal moduz, batzorde batetan eskaera eta galderen atalean, ergi ezkutuan proiektua jaso genuen eta gaur proposatzen dena da lehenengo legealdiko araudia bertan behera uztea. Ez dakigu hura aztertu den, baliodun ala ez. Badirudi ezetz. Guk ez dugu eszenifikatu nahi baratzen aurka gaudela, baina esan jarraitu den prozedura ez dela batera egokia eta ez zaigula aukerarik eman parte hartzeko. Horregatik guztiagatik, abstenitu egingo gara.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Herritarrek orain ere apuntatzeko aukera berbera izango dute. Behin eta berriz araudi hau zerbitzu batzordetik pasatu da eta nahiz eta araudia bera lehenengoaren antzekoa izan, lehen esanda bezala %65ak sozialak izango dira, hau da, elkarte eta behar gehiena duenentzat eta ez dute ordaindu beharrik izango. Besteak libreak izango dira. Hau da, batez ere, aldaketa nabarmena. Zuen legealdian planteatutako baratzetatik aurka azaldu ginen, alde batetik zoru industrialean kokatzeko asmoa zegoelako eta bestetik, 296.000 inguruko proiektua zelako. Gaur egungoa, 42.000,00 €ko da. Diferentzi izugarria da. Egia da, orduan 88 baratza zirela eta orain 60. Proiektua, EKOGUNEK egin du eta ez du kosturik. Aldiz, aurrekoak 9.000 €ko kostua zuen. Diferentziak nabarmenak dira eta ikusi egin behar nola funtzionatzen duen. Ez da lehenengo aldia udalean baratzen gaia lantzen dela.

Lehen ere guk proiektu bat martxan utzi genuen, baina etortzen denak borondate onenarekin jokatzeko duela uste dut. Hanka sartzeak ere edukiko genituen, baina nik uste dut aukera eman dela ekarpenak egiteko edo desadostasuna azaltzeko.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH BILDU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

5.- ZARETEN MAPA: "Beasaingo zareten maparen laburpen" dokumentua onartzeko proposamena.

Lurralde batzordearen ondorengo proposamena azaldu da:

"AURREKARIAK

1. Aintzat hartu dira azaroaren 17ko 37/2003 Legea (zarataren zonifikazioari dagokiona) garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua, eta urriaren 16ko 213/2012 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa). Horrenbestez, 2016ko ekainaren 9ko alkatetza ebazpenaren bitartez, udaleko zarataren mapa egiteko lana AAC CENTRO DE ACUSTICA APLICADA enpresari esleitu zaio. Aurrekontua 19.118 eurokoa da (BEZa barne) eta exekutatzeko epea 5,5 hilabetekoa izango da
2. 2016ko ekainaren 27an Hirigintza Batzordean eman zen udaleko zarataren mapa idazteko kontratuaren esleipenaren berri.
3. 2017ko otsailaren 3an enpresa esleipendunak egindako lana aurkeztu zuen.

OINARRI JURIDIKOAK

Legeria aplikagarria:

Azaroaren 17ko 37/2003 Legea (zarataren zonifikazioari, kalitate helburuei eta zaraten igorpenei dagokiona) garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua.

Urriaren 16ko 213/2012 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa).

- 6. artikulua.- udalerrien eskumenak
- e) Bere esparruari dagokion zaraten mapak egitea, onestea, berrikustea eta jendaurrean ikusgai jartzea.
- 10. artikulua.- zaraten mapak egitera behartuta dauden subjektuak

1.- 10.000 biztanle baino gehiagoko Udal guztiek egin beharko dute zarataren mapa bat; hala, igorpen akustikoen foku guztien zarataren mailaren ebaluazio orokor bat egin ahalko da, Dekretu honen aplikazio esparruan. Zarataren maila hori tokiko administrazioak garrantzitsutzat joko du, eta beste hainbat gauzen artean, hots horren urbanizazioetan izan dezaken eragina eta etorkizuneko garapena ebaluatu beharko ditu.

- 13. artikulua.- zaraten mapak argitaratzea.

Horrenbestez, LURRALDE batzordeak UDALBATZARI proposatu dio honako erabakiaren proposamena:

Lehenik. HASIERAKO ONESPENA EMATEA BEASAINGO ZARATEN MAPAREN LABURPENA.

Bigarren. Jendaurrean ikusgai jartzea GAOean eta EHAAn, gutxienez, hilabeteko epean; hala, edozein pertsona fisiko edo juridikok dokumentua eta prozedura aztertu ahalko ditu. Iragarriak zehaztu beharko du non dagoen dokumentazio hori eta alegazioak egiteko epea ere.

Hirugarren. Alegazioak aurkezteko epea amaitzen denetik bi hilabeteko gehienezko epean, zaraten mapari behin betiko onespena emango zaio aurkeztutako alegazioak kontuan izanda.

Jendaurreko epean ez bada inolako alegaziorik aurkezten, hasierako onespena behin betikoa izatea bihurtuko da.

Laugarren. Zaraten mapa onartzeari buruzko erabakia, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bosgarren. Zaraten mapa, digital euskarrian eta azterlan dokumentuak eta dokumentazio grafikoa barne, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiroko Lehendakartzara eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko da.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Esan behar da 10.000tik gora biztanle dituzten herriek, legez onartu eta gaurkotutako zaraten mapa behar dutela. Bertan azaltzen dira, N-1ak, trenak eta lantegiak sortzen dituzten hotsen diagnostikoa eta adierazitakoa onartzea proposatzen da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

6.- OBRAK EXEKUTATZEKO BAIMENA: Eusko Jaurlaritzari baimena ematea, Lizeo Alkartasunan obrak egiteko.

Lurralde batzordearen ondorengo proposamena azaldu da:

“AURREKARIAK

1. 2015eko urtarrilean ALKARTASUNA LIZEOko aurre aldetik hainbat txintxor erori ziren; hori dela eta, Udalak saihesteko neurriak hartu behar izan zituen, arrisku pertsonalak saiheste aldera (aldamioak jarri ziren).
2. Eraikinaren egoera txarra ikusita, OSCA LUQUIN arkitekto jaunari eskatu zitzaion ITEa egiteko.
3. 2016ko martxoaren 14an ITEa igorri zen Hirigintza Batzordera, eta eraikinean zerbait egiteko premia aintzat hartuta, ITEan zehaztutako akatsak konpontzeo berritze-proiektu bat enkargatu zen.
4. 2016ko apirilaren 26an Hirigintza Batzordean eman zen proiektuaren berri.

Alkateak hainbat kudeaketa egin zituen, obra, bere tamainagatik, Eusko Jaurlaritzak bere gain har zezan. Eta, ahoz, obra bere gain hartuko zuela esan zuen.

5. 2017ko urtarrilaren 18an, udaleko erregistroan, Hezkuntza Delegazioak aurkeztu zuen obrarako lizentziaren eskaera, Udalak enkargatutako proiektuaren arabera. Halaber, ICIOren % 95eko hobaria eta hirigintza-lizentzia ez ordaintzeko eskatu zuen.
6. Aldi berean, udaleko idazkariaren ziurtagiria eskatu zen. Horren bidez, alkateak udalbatzan honako erabaki hau hartzeko eskatzen zuen:

OINARRI JURIDIKOAK

Legeria aplikagarria:

- AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxe publiko integralen egitura eta antolaketa arautzen duena (12.2 artikulua).
- Sektore Publikoaren kontratuak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua (126. Artikulua).

Horren ondorioz, LURRALDE batzordeak UDALBATZA OSOARI honako erabaki hau hartzeko proposamena egin dio:

Lehenengoa.- Baimena ematea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari kasu bakoitzean dagokion kontratazio administratiboko ohiko prozeduren bitartez, konponketa, eraldatze edo handitze lanak egiteko udalaren jabetzako eraikinean (ALKARTASUNA LIZEOA ikastetxe publikoa dagoen eraikina).

Bigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Alkartasuna Lizeoan ITEa egin ondoren, fatxadan hainbat berrikuntza egin behar zirela ohartu ginen. Obra horiek premiarekin egin beharrekoak dira eta ITE horretan azaltzen diren akatsak konpontzeko berritze-proiektua egin zen. Pasa den urteko apirilaren 26an, hirigintza batzordean proiektu honen berri eman zen, baina ikusita egin beharreko lanen tamaina zenbatekoa den

(700.000 € inguru), Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saialera jo genuen eta hainbat bileren ondoren, ahoz bada ere, Jaurlaritzak esan zuen bere gain hartuko zituela obra horiek. Horregatik zain egongo gara eta aurtengo urteko urtarrilean, Hezkuntza Sailak obra egin ahal izateko lizentziaren tasaren ordainketatik salbuetsita egotea eta ICIO %95eko hobaria ematea eskatu du eta baita ere, obrak egiteko baimena ematea eta erabakiaren ziurtagiria igortzea. Hau da, hain zuzen ere, onartzea proposatzen dena.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

7.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOA: Espazio horri atxikitzeko proposamena.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Urteak dira, legegintzaldiak esango nuke, herritarren parte-hartzea aktibo behararen kontzientzia hartu genuena. Horrek egungo herritarren demokraziaren desafekzioari erantzuten dio eta demokraziaren zilegitasunaren krisia ekartzen ez badu ere, kalitatean eragin zuzena du eta instituzioekiko herritarren urruntzeak, gizartearen kezka eta interesen egituratzaile izateko instituzioek duten zailtasuna besterik ez du adierazten. Gipuzkoako Foru Aldundiak, herritarren partaidetzarako foroa sortzeko, Dekretua onartu du eta egiten diren proposamen edo diru-laguntzatarako, foro horretara atxikitzea eskatzen da.”

Ezagutzera eman da, Antolakuntza Batzordeko ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK

Urteak dira, Beasaingo Udaletik, herritarren parte-hartze aktiboa behar bat denaren kontzientzia hartu genuena. Horrek egungo herritarren demokrazia desafekzioari erantzuten dio. Demokraziaren zilegitasunaren krisia ekartzen ez badu ere, kalitatean eragin zuzena du. Instituzioekiko herritarren urruntzeak, gizartearen kezka eta interesen egituratzaile izateko instituzioek duten zailtasuna adierazten du.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

- a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundearen arteko erlazioak indartu daitezzen.
- b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundearen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.

b) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.

c) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.

d) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Azaldutakoaren arabera,

ERABAKI DA

Lehenengoa.- Beasaingo Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.

Bigarren.- Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.

- a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
- b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
- c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
- d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
- e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.

- g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.
- h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.
- i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.

Hirugarren.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

8.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUAREKIN KONTRATU-PROGRAMA: Onartzeko proposamena.

Alkatea jaunak, Malu Valles andreari (EAJ-PNV), hitza eman dio eta honek ondorengo adierazi du: “Lo que traemos al Pleno es algo que tiene que ver con el Centro de Día de Loinatz. Como ya sabeis la competencia de personas dependientes es de Diputación. No obstante, el Centro de Día de Loinatz, siempre ha sido gestionado por el Ayuntamiento de Beasain, quien percibe aportaciones económicas de Diputación. Lo que sometemos a la aprobación del Pleno es la aprobación de un nuevo contrato por dos años con Diputación, a los efectos indicados, al haber vencido el que anteriormente teníamos suscrito.”

Ezagutzera eman da, Herritarren batzordeko proposamena, hau da:

I. Mendekotasun-egoerek eragindako beharrezanei aurrea hartu eta erantzuteko zerbitzua eskaintzeko (Loinatz eguneko zentroa) Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak sinatzea proposaturiko kontratu-programaren edukia aztertirik.

II. Kontutan edukirik, Beasaingo Udalak kudeatzen duela Loinatz eguneko zentroa, nahiz eta gizarte zerbitzuen arloko eskumenen banaketaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundiari egitea dagokio.

Herritarrak batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio, ondorengo arautegia kontutan edukirik:

- Abenduak 5eko 12/2008 legea.
- Urriaren 6ko 185/2015 dekretua.

Lehenik: Ondorengo hitzarmeneko baldintzak onartzea, bertan bi alderdien betebeharrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Beasaingo Udalari egiten dizkion ekarpenak ezartzen dira, lehen aipatutako zerbitzua emateagatik.

Bigarren: Kontratu-programa indarrean egongo da 2017-01-01etik 2017-12-31arte. Epea amaitzean besterik gabe luzatutzat joko da urte natural batez, betiere foru erakundearen aldetik nahikoa den aurrekontu xedapena badago luzatutako ekitaldirako. Hala ere, indarraldia luzapena barne 2 urtetakoa izango da gehienez.

Hirugarren: Alkateari ahalmena ematea 2017-01-24ko data duen kontratu-programa sinatzeko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

9.- UDALBATZARI KOMUNIKAZIOA: Egindako eragozpenen aurka emandako Ebazpenei buruzko jakinarazpena.

Kontuhartzaileak 2017ko urtarrilaren 31n emandako ondorengo erreparotxostenaren berri eman da:

“GAIA.- Egindako eragozpenen aurka emandako Ebazpenei buruzko jakinarazpenak Udalbatzari.

Txosten hau, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratzailearen 218 artikulua xedatutakoaren agindupean igortzen da, honek ezartzen baitu Udalbatzari helaraztearen beharra Toki Erakundearen Lehendakariak, egindako eragozpenen aurka emandako ebazpenen berri ematearen betebeharra.

Aipatutako xedapenak dioena betez ondorengo ebazpenak zerrendatzen direla:

- B17/00094 ebazpena, ingurune irekiko eskuhartzea, familia eskuhartze, adin txikikoak, helduen akonpañamendua, formazio tailerrak.

2.- Jakinarazpen horrek puntu independente bat osatu behar duela dagokion Osoko Bilkurako gai-zerrendan.

3.- Korporazioaren Lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango duela Osoko Bilkuran.”

Ezagutzera eman da, aipatutako ebazpenaren bidez, Alkateak, Lorratz Elkarteak. (I.F.K.: B20737300) azaro eta abenduan emandako zerbitzuengatik igorritako fakturen ordainketa eta baita esleipen berria gauzatu arte igortzen direnena ere agindu zuen, nahiz eta aipatutako fakturen kopuruak, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratuan (138.3 art.) kontratu txikietarako xedatutako muga gainditu eta ez kontratazio espedienterik izapidetu.

10.- ALKATEAREN EBAZPENAK: 2017ko urtarrilaren 23tik 2017ko otsailaren 18a bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2017ko urtarrilaren 23tik 2017ko otsailaren 18a bitarte emandako Ebazpenak.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Eskaera eta galderen aurretik, hasieran esan dudan bezala, "martxoaren 8ko emakumeen nazioarteko egunaren adierazpena" premiazko puntu modura tratatzea, bozkatzea pasatuko gara.

Zezenia Herrador andreak (Beasaingo EH BILDU), Alkate jaunari hitza eskatu dio premiazko puntuarekiko zer esana duelako. Alkate jaunak hitza eman ondoren, Zezenia Herrador andreak ondorengoa adierazi du: "Ez dut oso ondo ulertzen puntu hau zergatik sartzen den premiazko puntu modura. Jadanik orain dela hiru aste, Irma Arnaiz zinegotziak adierazpena helarazi zigun, gaia denborarekin lantzeko eta adostasun batera iristeko. Horrela egin genuen. Beraz, aurreneko gauza berari eskerrak ematea izango litzateke. Baina Plenoko gai-zerrenda iritsi zenean sorpresa hartu nuen ikusi nuenean, adierazpen hori gai-zerrendan ez zelako aurreikusten. Berarekin harremanetan jarri nintzen eta harridura handiagoa oraindik izan nuen, jakin nuenean bera ere harridura zegoelako. Galdu nahi nuen ea nola den posible, batzordean gaia landu, bertan plenoan onartuko zela adostu eta gero Alkateak gai-zerrendan ez sartzea. Ahoa betetzen zaigu berdintasuna aldarrikatzen, baina gero ez gara gai adierazpena Plenotik pasatzeko. Egia esatea nahi baduzue atzotik gai honen inguruan hitz egin dugunarekin ez naiz batere eroso sentitu. Errespetu falta iruditzen zait lanketa egin dugun guztiokiko, Izan dudan sententzia da, lehenengo eta bigarren mailako gaiak daudela eta ez dago esan beharrik, beste behin ere berdintasun gaia, zein mailatan geratu den. Nahiko tristea iruditzen zait gaur egun horrelako gauzak gertatzea!

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Hainbat gauza esan dituzu eta batzuekin ez nago ados. EUDELen onartutako testua da eta lehenengo aldiz, alderdi guztiak, hemen gaudenak eta ez daudenak, onartutakoa eta EUDELetik bidaltzen zaigu dokumentua (ni batzorde exekutiboan nago eta bertan aurrez aurre jakin ahal izan nuen ematen ziren gomendioak. Adibidez, BILDUK eskatzen zuena zen herri bakoitzari ahalmena ematea testua aldatzeko). Bertan aho batez erabaki zena izan zen, martxoak 8ko emakumeen nazioarteko eguna zela eta bi indar-gune zituela, alde batetik edukia bera eta bestetik aho batez onartua izana. Beraz, hori da Udalei traslatatu zitzaiguna. Lanketa bertan egin zen eta BILDURI erantzun zitzaiena zen, alderdian bertan ere lau pertsoneri eman ezker, lauek adierazpen ezberdinak egingo zituztela. Beraz, bere horretan onartzea erabaki zen. Horrekin esan nahi dut, adostasuna hona iristerako lortuta zegoela.

Esan baita ere, antolaketa berria onartu genuenean, mozioak lantzeko eskumena bozeramaile batzordeari eman zitzaiola. Hortik haratago eta mozioa bezala zetorrenez, bozeramaile batzordean pentsatu genuen, martxoak 8, hemendik hamabost egunera da, gaur plenotik pasa eta onartu eta behar bada komunikabideetatik ere behar adineko indar ez zitzaiola emango distantziagatik eta egokiagoa zela adierazpen instituzional bat propioa horretarako egitea. Bakarrik horretarako. Niri atzo Irmak esan zidan Plenotik pasatu behar zela eta, noski, ez dago inolako eragozpenik, iruditzen zaidalako oinarritzko kontuak direla hemen esaten direnak eta ez dut zalantzan jartzen hauekin ados gaudenik. Ez da inor zapuztea iza, ezta ere bigarren mailako gai modura jartzea. Ez zait iruditzen arazo bat. Honek elkartu egin behar gaitu, ez sakabanatu. Nahiz eta gaur hau hemen irakurri, eguna gerturatzen

den heinean beste trataera bat behar du. Hori zen asmoa, baina beste batean izango da!. Alderdi guztiak batera adierazpen bat egin eta prentsari atera.”

Zezenia Herrador andreak (Beasaingo EH BILDU): “Bakarrik komentatu zuk esan duzun bezala, aztertu zela aztertu zen tokian eta hona iristerako adostuta zegoen, baina herriari ere eman zitzaizkien ahalmena zerbait aldatu behar bazen aldatzeko. Irmak, hori da hain zuzen ere, mahai gainean jarri zuena, hau da aztertu eta proposamenen bat izan ezker, aztertzearena eta hitz egitearena. Saiatu zen herrian bertan adostasuna bilatzen. Askotan falta botatzen duguna, alegia. Zuk aipatzen duzun distantzia, nire ustetan gaur onartzeak ez du saihesten martxoak 8a gerturatu den heinean beste ekintzaren bat egitea. Sinbolikoa izan da ere Udaltzatik pasatzea merezi du nahiz eta pena izan oraindik ere gaur egun, horrelako ekintzak egin beharra izatea.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Horregatik pasatzen da.”

Zezenia Herrador andreak (Beasaingo EH BILDU): “Pasatzen da, pasatzen denagatik, zeren eta ez zegoen inolako asmorik pasatzeko!”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Esan dugun zein zen asmoa, baina ez alde batera uztearena. Nola egongo da ba arazorik hau pasatzeko?. Hasiera erabaki zen Plenotik pasatzea eta gero beste erabaki bat hartu zen, baina nire ustez hobe beharrez.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Bozerramaile taldearen kide naizen aldetik, gauza bat esan nahiko nuke: eztabaidarik ez zen eman. Zuek proposatu zenuten “adierazpen” modura pasatzea. Nik egia esan, ez nintzen aurka azaldu, baina ez zen inolako eztabaidarik eman. Are gehiago esango dut, nik gaur jakin izan den gertutasuna eta orain aipatzen direnak. Nik ez nekien batzordetik pasatu zenik ere eta lanketa hori egiten aritu direnik. Hori ez jakitea ez da zuen errua gurea baizik. Zuek bozerramaile taldean proposamen hori egin zenutenean, informazio hori ez nuen.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Herritarren batzordean ere gaur esan dudana gauza bera esan nuen.”

Bozkatu egingo dugu premiazko puntu modura tratatzea onartzen den edo ez.

Bozketa eginda, aho batez onartu da eta Alkatea jaunak adierazpena irakurtzeari ekin dio:

“EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEKO ADIERAZPEN EREDUA

Martxoak 8: Ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio

“Emakume gutxi daude ordezkatuta udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoak aurre egin behar izaten dituzte”. Hori jaso zuen Inger Lingek Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkaritza politikoari buruzkoa izan zen.

Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkariak eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, “euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organismoetako eta organo kolegiatuak kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutako artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte”. Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organismoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organismoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak.

Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkariak. 2015ean, alderdi politikoen %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeak abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.

Euskadin gehiengoak duten sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakari, eta erabakitze organo garrantzitsuenetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politiketan.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU) irakurtzen jarraitzen du: “Egoera horren JAKITUN, Beasaingo Udalak Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonen Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:

1. Kotsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikoetan izan ezik).
2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuen edo bestelako diskriminazio-edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.
3. Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.
4. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren arabera neurri zuzentzaileak ezartzeko.
5. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola, emakumeen etxeak, jabeakuntza eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jabeakuntza-eskolako programan parte har dezaten ahalbidetzea.
6. Udalerriko emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengoaren taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.
7. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.
8. Udaletako berdintasun sailetan eta gainerako udal sailetan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten.”

Adierazpena bozkatu egiten da eta aho batez onartu egin da.

11.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

ARARTEAKOAK EGINDAKO ERREKERIMENDUA

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Urte hasieran sare sozialen bidez jakin genuen Arartekoak errekerimendu bat egin ziola Udalarri gazte eta alkoholaren

inguruan. Orain dela gutxi jakin izan dugu Arartekoak Beasaingo Udalari zoriondu egin diola eman duen erantzunagatik eta hartu dituen neurriengatik. Galdera erraza da. Gure taldeak ez du inolako berririk honi buruz, bere garaian ere informaziorik jaso ez genuelako egindako errekerimenduari buruz. Guk ez dugu inolako lanketan parte hartu eta ez dakigu Udalak zein ekimen burutu dituen edo zein konpromiso hartu dituen Arartekoarekin.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Egia da buru-hauste dezente eman dizkigula eta egin, ezer ez dugu egin. Egurra jaso eta gure ustez neurririk gabe eta gure kexa azaltzea Arartekoarengana joan ginen. Arartekoak idatzi bat bidali zuen eta irakurri ondoren, egia esan, ez zuen heldu leku handirik. Idatzia, Beasaini ez zegoen zuzenduta, Ordiziarri baizik eta pentsatu zitekeen ez zela guretzako. Esaten zuena zen, gure eskumenak betetzeko, hau da, adin txikikoei alkohola saltzen ez uzteko. Gure sorpresa izan zen, komunikabide bat tarteko, hiru herriei bidaltzen zitzaigula eta komunikabideetan ateratzen da, hiru herriek alkoholarekin arazo bat dugula. Lazkao Alkatea eta biok Arartekoarengana joan ginen eta esan genion, errespetu instituzional falta izatearen gain, zehaztasun eta zorrotasun falta ikaragarria zela, herri batzuk jomugan jartzea jakinda gai hauek duten oihartzuna. Han enteratu ginen, San Juan Bosco dela eta Ordizian, oker ez banago, kexa bat egon zela eta inguruko herriei bidaltzen zaigula errekerimendua. Sagardotegietan ez saltzeko aipamenak egiten zituen eta harantz joan eta esaten denena Beasainen ez dagoela sagardotegirik ba....Nahiko egoera tristea guretzat, Berak esan zuen ea nola zuzendu zezakeen egindakoa. Guk esan genion kaltea eginda zegoela eta guk egin duguna da egiten dena helarazi, hau da, bigilantzia jarri, ikastetxeetara joan eta udaltzainek pasa toki ezberdinetatik esanez adin txikikoei alkohola ez saltzeko eta gazte lokaletan gauzatu ditugun programak. Nik uste dut behin hanka sartu, nola atera..., ba behar bada onena izaten da isilik egotea eta ez notizi horiek ateratzea. Hori izan da, baina ez da lanketa berezirik egin, baizik eta gu ere gure kexarekin ibili gara batera eta bestera.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gomendio bat hurrengorako. Gure harridura sortu diguna da, zuen atzera eta aurrera ibili eta Arartekoaren eskutitzaren berririk ez dugu izan.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez dago neurri berririk, baina Arartekoak eskatzen duenean, hainbat gauza eskatzen ditu. Berriz esango dut, gai honek komunikabideetan izan duen oihartzunak eragin du hau guztia horrela ateratzea.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Baina udalaren sare sozialetan, Arartekoaren eskutitza konpartitza, guk ezer jakin gabe!”

EMAKUMEEN ADIERAZPENAREN GAIN

Publikoaren dagoen emakume batek hitza eskatu du eta Alkate jaunak eman ondoren, hau adierazi du: “Al haber leído vosotros la declaración habéis invisibilizado a las mujeres. Ya que estáis rodeados de mujeres muy capaces, les teníais que haber cedido la palabra para que fueran ellas quienes con su voz, leyeran el texto y con ese gesto las hubierais empoderado. Si se trata de buscar espacios en que la mujer tenga voz y voto, tendríais que empezar vosotros por cedérnoslos. La declaración está bien elaborada, pero queda fría. Si queréis hacer algo con miras al 8 de marzo, los portavoces no deberían de ser hombres.”

Malu Valles andreak (EAJ-PNV): “Voy a contestar yo porque le he pedido permiso al Alcalde, que es quien como portavoz debería de hablar. Como mujer no necesito que el Alcalde me empodere, ni mucho menos, y la decisión de que sea el Alcalde y los portavoces quienes tengan la palabra, es que es un tema muy importante y como tal, no debe de tomar la palabra un hombre o una mujer, sino quien ejerce la mayor autoridad y responsabilidad en este Ayuntamiento, que es el Sr. Alcalde y los portavoces de cada grupo y sin ninguna necesidad de que nadie me de la palabra como mujer, porque no lo necesito, ni que nadie me empodere, porque no es necesario.”

Publikoaren dagoen emakumeak: “Claro que nadie te tiene que empoderar. Te tienes que empoderar tu misma. Aunque el Alcalde sea el máximo representante, en este caso tenemos la figura de un hombre, y precisamente porque se trata de un tema muy importante, quizás en este caso debería de figurar en un segundo plano.”

Malu Valles andreak (EAJ-PNV): “¿No sería también criticable que el Alcalde en un tema que es tan importante y que este equipo de gobierno lo está impulsando, que cediera su palabra y su autoridad como Alcalde, a una persona para defender algo que esté Ayuntamiento lleva como bandera?”.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “No ha sido una decisión unilateral el que la lea yo, porque puedo estar de acuerdo contigo. No he sido yo el que ha tomado esta decisión, sino parte de las personas que han trabajado esto. Se querido visualizar con los diferentes partidos, en este caso, con Koldo, pero también se le ha ofrecido a Santi porque vuelvo a repetir, creo que tiene dos frentes importantes, uno es lo que se dice en el propio texto y otro el que sea un texto unificado y para nosotros viniendo de donde venimos, empieza a tener fuerza.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Ha sido un acuerdo de todos y todas.”

Publikoaren dagoen emakumeak: “Si pero me parece un error de todos y todas.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.